

2025eko urriaren 23a, osteguna

203

Jueves, a 23 de octubre de 2025

**TOKI ADMINISTRAZIOA** 

3

# ADMINISTRACIÓN LOCAL

## **BERGARAKO UDALA**

### Iragarkia

Alkateak 2025eko urriaren 17an emandako Dekretu baten bitartez Aroztegi aretoaren 2026rako erabilera eta programazioa arautzeko baldintzen plegua onartu da eta honen bidez argitaratzen da:

Aroztegi aretoaren 2026rako erabilera eta programazioa arautzeko baldintzen plegua.

1. 2026an Aroztegi aretoan beren lanak erakutsi nahi dituzten artistek eskaera Bergarako Udal Erregistro Elektronikoan edo, bestela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aurreikusten dituen gainerako bideen bitartez aurkeztu beharko dute.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFI-ZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunean zabalduko da eta 2025eko azaroaren 25eko 13:00etan bukatuko da.

- 2. Eskatzaileak derrigorrez udalak prestatutako ereduari jarraituz egin beharko du eskaera. Eskaera egiteak ez du esan nahi erakusketa-eskaintza hori urteko programaziorako onartua izango denik, eta ezta ere onartua izan arren berak proposatutako datetan egingo denik ere erakusketa, Udalak erabakiko baitu, programazioa erabakitzen duen batzordeak proposatutakoari jarraituz.
- 3. Eskaera-eredua (F0124 inprimakia) interesa duten guztiek eskuragarri izango dute BAZean eta baita udalaren web-orrian ere (www.bergara.eus).
- 4. Interesatuek derrigorrez eskaera F0124 inprimakia erabilita egin beharko dute. Inprimaki hori behar den bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko da.

Eskaerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Artistaren ibilbide artistikoari buruzko dosierra.
- Erakusgai jarri nahi diren zenbait artelan edo objekturen argazkiak.
- Erakusgai jarri nahi diren artelan edo objektuen behin-behineko zerrenda eta bakoitzaren neurriak eta pisua.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko nahitaezko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu barik dagoenean, 10 eguneko epea izango dute interesdunek antzemandako akatsak zuzentzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Emandako epea akatsak zuzendu barik igarotzen bada, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatu egingo da.

5. Batzorde mistoak interesgarritzat jo dezakeen beste edozein dokumentu aurkeztea eskatu ahal izango du Udalak. Halaber, eskatu ahal izango dio artistari artelanen behin betiko zerrenda erakusketaren data baino bi (2) hilabete lehenago. Behin betiko

#### AYUNTAMIENTO DE BERGARA

#### Anuncio

Mediante Decreto de Alcaldía de 17 de octubre de 2025 se ha aprobado el pliego de condiciones reguladoras del uso y programación de la sala Aroztegi para el 2026, por lo que se procede a su publicación:

Pliego de condiciones reguladoras del uso y programación de la sala Aroztegi para el 2026.

- 1. Las y los artistas que deseen exponer sus obras en la sala Aroztegi durante el 2026 deberán presentar su solicitud en el Registro Electrónico Municipal de Bergara o, en su defecto, a través de los demás medios contemplados en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.
- El plazo de presentación de solicitudes se abrirá el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y finalizará a las 13:00 horas del día 25 de noviembre de 2025.
- 2. La persona solicitante deberá formalizar su solicitud, obligatoriamente, en el modelo elaborado por el ayuntamiento. La presentación de la solicitud no implica necesariamente la aprobación de dicha oferta de exposición para la programación anual, ni tampoco que la misma, aun siendo aprobada, se realice en las fechas propuestas, ya que será el ayuntamiento quien lo resuelva de conformidad con la propuesta de la comisión que decide la programación.
- 3. El modelo de solicitud (impreso F0124) estará disponible en el BAZ (Servicio de Atención a la Ciudadanía) y en la página web municipal (www.bergara.eus).
- 4. Las personas interesadas deberán formular su solicitud obligatoriamente mediante el impreso F0124, que deberá presentarse correctamente cumplimentado y firmado.

Junto con la solicitud, deberán presentarse los siguientes documentos:

- Dossier sobre la trayectoria artística del artista.
- Fotografías de algunas de las obras de arte u objetos que se desean exponer.
- Relación provisional de las obras u objetos artísticos que se quieren exponer, indicando las dimensiones y peso de cada uno de ellos.

Cuando la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez (10) días –a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento por parte del ayuntamiento– a fin de que puedan subsanar los errores detectados.

Transcurrido el plazo concedido sin haberse subsanado los errores, se entenderá que ha desistido de su solicitud y esta será archivada sin más trámite.

5. El ayuntamiento podrá requerir la presentación de cualquier otro documento que la Comisión Mixta considere de interés. Así mismo, la comisión podrá requerir al artista la relación definitiva de las obras de arte con dos (2) meses de antelación a la fe-

www.gipuzkoa.eus 1 LG.:S.S.1-1958

zerrenda hori ikusita, udalak, batzorde mistoaren proposamenari jarraituz, baimena ukatu edo erakusketaren baldintzak aldatu ahal izango dizkio artistari.

- 6. Batzorde mistoak, aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren, aukeraketa egin eta urteko programazioa egingo du. Programazioa ez da osatuko derrigorrez aurkeztutako eskaera guztiekin; izan ere eskaera aurkezteak ez dakar berarekin programazioan onartua izateko eskubidea. Aurkeztutako eskaeretatik kanpo interesgarriak izan daitezkeen beste erakusketa batzuk ere antolatu ahal izango ditu batzorde mistoak. Kasu horretan baldintza-plegu honen 22 eta 23 puntuetan jaso den erara jokatuko da. Halaber, batzordeak erabaki ahal izango du erakusketarik ez programatzea, ustez gutxieneko kalitatea bermatzen ez delako, nahiz eta aretoa libre egon.
- 7. Batzorde mistoak urteko egutegia osatzerakoan bi artisten erakusketa proposamenak erreserban utzi ahal izango ditu, urteko egutegian bajarik egonez gero baja horiek betetzeko. Bajarik egon ezean, erreserban utzitako erakusketak zuzenean pasatuko dira hurrengo urteko egutegira.
- 8. «Batzorde Mistoa» Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzuaren barnean sortutako batzordea da eta berau arduratuko da Aroztegi aretoaren programazioaz. Batzorde honetako partaideak ondorengoak izango dira: Beart Bergarako Artisten elkarteko kideak, Bergarako Arizondo argazkilari elkarteko kideak, Bergarako Buztinzale zeramika elkarteko kideak, Kultura teknikaria eta Bergarako Udaleko herritarren arloko batzordeko zinegotzia. Dena dela, batzorde misto honek adituen kolaborazioa ere eskatu ahal izango du, batzordeko kideek egoki edo premiazko ikusten badute.
- 9. Batzorde Mistoak egindako proposamena alkateari helaraziko dio eta honek hartuko du erabakia. Hartutako erabakia web orrian argitaratuko da eta argitalpen horrek jakinarazpenaren balioa izango du 39/2015 legeko 45. artikuluari jarraituz.
- 10. Eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteko epean erabakirik hartuko ez balitz, interesatuak bere eskaera baztertuta geratu dela ulertu ahal izango du.
- 11. Eskaera aurkeztu duten guztiek onartutakoen zerrenda kontsultatu ahal izango dute abenduaren 12tik aurrera.
- 12. Erakusketaren arabera, udalak fidantza eskatu ahal izango dio artistari. Eskatzaileari fidantza eskatzen zaion kasuetan, erakusketaren muntaia hasi baino hamabost egun lehenago gutxienez jarri beharko du eskatzaileak fidantza. Eta fidantza jarri arte Udalak emandako baimena behin-behinekoa izango da.
- 13. Artista bakoitza edo interesduna arduratuko da erakusketa muntatu eta desmuntatzeaz. Udalak adierazitako epean ez bada erakusketa jartzen edo epea amaitu ondoren erretiratu gabe badago, jarri duen fidantza galduko du eskatzaileak. Horrez gain, zehaztutako epeak gainditzen duen egun bakoitzarengatik 30 euroko diru-zigorra ezarriko zaio eskatzaileari.
- 14. Erakusketa bukatutakoan, lagatako instalazioak hartu diren baldintza berberetan utzi beharko dira. Erakusketaren muntaia dela-eta aretoa kaltetua gertatuko balitz, kalte horren ordainketa egiteko erabiliko da fidantza. Fidantzarekin kalte-ordainak estali ezin diren kasuetan, Udalak artistari erreklamatu ahal izango dizkio.
- 15. Udalak une oro eskubidea izango du jardueraren garapenerako beharrezkoak diren instalazio osagarrien muntai lan guztiak eta bakoitza ikuskatzeko. Artistak edo erakusketaren jartzaileak onartu egin beharko ditu horri buruzko irizpide eta oharrak.

- cha de la exposición. A la vista de dicha relación definitiva, el ayuntamiento, de conformidad con la propuesta de la comisión mixta, podrá denegar la autorización o modificar las condiciones de la exposición.
- 6. Una vez analizadas todas las solicitudes presentadas, la comisión mixta procederá a la selección y a la elaboración de la programación anual. La presentación de la solicitud no implica el derecho a ser admitida en la programación, de modo que la programación no incluirá necesariamente todas las solicitudes presentadas. Además, aparte de las solicitudes presentadas, la comisión mixta podrá también organizar otras exposiciones que considere interesantes, en cuyo caso se actuará conforme a lo señalado en los puntos 22 y 23 de este pliego de condiciones. Así mismo, aunque la sala esté libre, la comisión podrá decidir no programar ninguna exposición si considera que no se garantiza una mínima calidad.
- 7. La comisión mixta, al elaborar el calendario anual, podrá dejar en reserva dos propuestas de exposición de artistas, a fin de poder cubrir eventuales bajas. Si no hubiera ninguna baja, las exposiciones en reserva pasarán directamente a la programación del año siguiente.
- 8. La «Comisión Mixta» que se encargará de la programación de la sala Aroztegi se conformará dentro del Servicio de Cultura del Ayuntamiento de Bergara y estará compuesta por: representantes de la asociación de arte Beart de Bergara, representantes de la asociación de fotografía Arizondo de Bergara, representantes de la asociación de cerámica Buztinzale de Bergara, la técnica de Cultura y el/la concejal de la Comisión de la Ciudadania del Ayuntamiento de Bergara. No obstante, la comisión mixta, en caso de considerarlo adecuado o necesario, podrá pedir la colaboración de personas expertas.
- 9. La Comisión Mixta elevará la propuesta a Alcaldía para su resolución. La resolución adoptada será publicada en la página web y dicha publicación tendrá valor de notificación, de conformidad con el artículo 45 de la Ley 39/2015.
- 10. Si transcurrieran tres meses desde la presentación de la solicitud sin que se adoptase resolución alguna, la persona interesada podrá entender que su solicitud ha sido rechazada.
- 11. La resolución definitiva adoptada por la comisión mixta se publicará en la web del ayuntamiento. Todas las personas solicitantes podrán consultar la lista de admitidos a partir del 12 de diciembre.
- 12. En función de la exposición, el ayuntamiento podrá exigir al artista el pago de una fianza. En tal caso, ésta se deberá depositar al menos quince días antes del montaje de la exposición y, en tanto no sea depositada, la autorización otorgada por el ayuntamiento tendrá carácter provisional.
- 13. Cada persona interesada o artista se deberá encargar del montaje y desmontaje de la exposición. En caso de que la exposición no se haya montado en el plazo indicado por el ayuntamiento o no se haya retirado tras finalizar el plazo para ello, la persona solicitante perderá la fianza depositada. Además, se le impondrá una sanción económica de 30 euros por cada día que exceda el plazo establecido.
- 14. Al finalizar la exposición, las instalaciones cedidas deberán entregarse tal y como se encontraron a su inicio. Si durante el montaje de la exposición la sala sufriera algún daño, se haría uso de la fianza para solventarlo. En caso de que la fianza no cubriera todos los daños y perjuicios, el ayuntamiento podrá reclamárselos al artista.
- 15. El ayuntamiento ostentará en todo momento el derecho de inspeccionar todos y cada uno de los trabajos de montaje de las instalaciones complementarias necesarias para el desarrollo de la actividad. El artista o persona que exponga las obras deberá aceptar las indicaciones y criterios que se le comuniquen en torno a dichos trabajos.

- 16. Udalak, pisuzko arrazoi batek hala eskatzen duenean, hitzartutako erakusketaren datak eta baldintzak aldatu ahal izango ditu.
- 17. Udalak erabakiko du erakusketak publikoari irekitzeko ordutegia.
- 18. Oro har erakusketarako sarrera dohainekoa izango da, eta publiko osoari irekia.
- 19. Aroztegi aretoan erakusgai jarritako artelanen edo objektuen salmenta ezingo da Aroztegi aretoan bertan egin.
- 20. Udalak ez du erakusten diren objektuen kalte, urraketa edo lapurreten erantzukizunik hartuko. Era berean, Udalak ez du asegururik kontratatuko. Erakusketa aseguratu nahi den kasuetan, artista arduratu beharko da berau kontratatzeaz.
- 21. Udalak dohainik utziko dio eskatzaileari Aroztegi aretoa, eta honek dohainik egingo du bertan erakusketa.
- 22. Aroztegi aretoa programazio aretoa da, eta batzorde mistoa da, baldintza plegu honetan zehaztutakoa jarraituz, urteroko programazioa egiteaz arduratuko dena. Aroztegi aretoa ohiko erakusketak eta Bergarako Kultur taldeen erakusketak antolatzeko ere erabiliko da, eta ondoren aipatzen diren garaitan lehentasuna izango dute:
- 1.— San Martin jaiak pasatu ondoren, 10 egunez, aire libreko Simon Arrieta pintura lehiaketako lanen erakusketa.
- 2.— Azaroko bigarren hamabostaldi inguruan, 10 egunez, Bergara Argazki lehiaketaren erakusketak.
  - 3.— ZTB jardunaldiak.
- 4.— Bergarako kultur taldeen ohiko erakusketek, azaroaren bukaeratik edo abendu hasieratik urtarrilaren amaierara bitartean

Halere, erakusketa horien antolatzaileek erakusketa jartzeko eskaera idatziz egin beharko diote Bergarako Udalari. Eskaera egiteak esan nahiko du erakusketaren antolatzaileek eta elkarteek baldintzen plegu hau onartzen dutela. Aretoa bi kultur taldek aldi berean konpartitu ahal izango dute beren lanak erakusteko, batzorde mistoak egoki irizten badio.

Aipatu erakusketa hauen data zehatzak eta gainontzeko xehetasunak batzorde mistoak finkatuko ditu.

- 23. Udalak, Batzorde Mistoaren bitartez, artistak gonbidatzeko edo erakusketak kontratatzeko aukera ere izango du. Kasu horretan, onartutako erakusketen baldintzen pleguan aldaketak egin ahal izango dira, interesatuari gutxienez 15 egun aurretik jakinarazita.
- 24. Bergarako Udalak indarkeria matxistaren aurka lan egiteko daukan konpromiso irmoari jarraituz, eta zehazki, 2018ko azaroaren 26ko eta 2019ko azaroaren 25eko Osoko Bilkuratan onartutako Adierazpen Instituzionalei helduta, ez dira onartuko indarkeria matxista bultzatzen duten, edo biktimen erreparazio eskubidea urratzen duten lanen edo egileen erakusketak.

Aurrekoaren harira, Aroztegiko Batzorde Mistoak edo Bergarako Udalak eskubidea izango dute artistaren bat edo erakusketa oso bat bertan behera uzteko, aurretik aipatutako Adierazpen Instituzionaletan onartutako neurri hauekin bat egiten ez badute:

- Biktimen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jarri, euren beharrizan eta eskariei entzunez eta arreta emanez.
- Tartean sartutako erakunde guztiekin koordinatuz, arreta eta erreparaziorako baliabideak egituratu, indarkeria matxistaren biktimen egoera erabat lehengoratuko dela eta urratutako eskubideak berrezarriko direla bermatzeko.

- 16. El ayuntamiento podrá modificar las fechas y condiciones acordada para la exposición, siempre que haya una razón de peso que así lo exija.
- 17. El ayuntamiento establecerá el horario de apertura al público de las diferentes exposiciones.
- 18. Con carácter general, la entrada a las exposiciones será gratuita y abierta a todo el público.
- 19. En la sala Aroztegi no se podrá realizar compraventa de los objetos u obras de arte expuestos en la misma.
- 20. El ayuntamiento no asumirá responsabilidad alguna por daños, deterioros o robos de los objetos expuestos ni contratará ningún seguro. En caso de que se desee asegurar la exposición, será el artista quien se haya de encargar de ello.
- 21. El ayuntamiento pondrá la sala Aroztegi a disposición de la persona solicitante de forma gratuita, y la persona solicitante deberá realizar la exposición en dicha sala igualmente de forma gratuita.
- 22. La sala Aroztegi es una sala de programación y es la comisión mixta la que se encarga de elaborar su programación anual, siempre conforme a las condiciones de este pliego. La sala Aroztegi también se utilizará para celebrar otras exposiciones habituales y las organizadas por agrupaciones culturales de Bergara, que en las siguientes fechas tendrán prioridad ante las demás:
- Después de las fiestas de San Martín, y durante 10 días, exposición de los trabajos del concurso de pintura Simón Arrieta al aire libre.
- En torno a la segunda quincena de noviembre, y durante
  días, la exposición del Certamen de Fotografía.
  - 3.— Jornadas de Ciencia y Tecnologia (ZTB).
- 4.— Exposiciones habituales de las agrupaciones culturales de Bergara, desde finales de noviembre o principios de diciembre hasta finales de enero.

No obstante, para la celebración de dichas exposiciones, la organización de las mismas deberá presentar su solicitud por escrito ante el Ayuntamiento de Bergara. Con la presentación de la solicitud, se entenderá que las personas y asociaciones organizadoras de las exposiciones aceptan el presente pliego de condiciones. La sala podrá ser utilizada simultáneamente por dos agrupaciones culturales a la vez para la exposición de sus trabajos, siempre que la comisión mixta lo considere oportuno.

La comisión mixta será quien determine las fechas concretas y demás detalles referentes a las exposiciones citadas.

- 23. El ayuntamiento, a través de la comisión mixta, podrá también invitar a artistas o contratar determinadas exposiciones. En este caso se podrán realizar modificaciones en el pliego de condiciones aprobado de las exposiciones, siempre que dichos cambios se comuniquen a la persona interesada con al menos quince (15) días de antelación.
- 24. En virtud del firme compromiso del Ayuntamiento de Bergara de trabajar contra la violencia machista y, en concreto, de las Declaraciones Institucionales aprobadas en las Sesiones Plenarias de 26 de noviembre de 2018 y 25 de noviembre de 2019, no se admitirán exposiciones de obras o autores que inciten a la violencia machista o vulneren el derecho a la reparación de las víctimas.

Al hilo de lo anterior, la Comisión Mixta de Aroztegi o el Ayuntamiento de Bergara ostentará el derecho de suspender a algún artista o exposición completa que no se ajuste a las siguientes medidas aprobadas en las citadas Declaraciones Institucionales:

- Poner los derechos de las víctimas en el centro de todo el proceso de atención, escuchando y atendiendo a sus necesidades y demandas.
- Articular, en coordinación con todas las instituciones implicadas, recursos de atención y reparación que garanticen la restauración integral de la situación de las víctimas de violencia machista y el restablecimiento de los derechos vulnerados.

- Bizirauleei entzun, horrela prebentzio eta segurtasun neurriak diseinatu ahal izateko; emakumeek bizirauteko, babesteko eta ahalduntzeko behar dituzten aurrez aurreko estrategiak balioan jarriz.
- Biktimen salaketa- eta erreklamazio-prozesuetan laguntza eman, emakumeek adierazitako testigantza eta beharrak legitimatuz.

Erakusketa bat bertan behera uzteko erabakian batzorde mistoa edota batzordea eta Udala ados jarriko ez balira, Udalak izango du azken hitza.

- 25. Erabilera anitzeko aretoa da Aroztegi, nahiz eta erakusketek izango duten lehentasuna. Halere, ondorengo ekitaldiak ere egin ahal izango dira bertan, besteak beste, kamera musikaren formatu txikiko kontzertuak, hitzaldiak, argazki edo diapositiba proiekzioak eta liburu aurkezpenak. Dena dela, ekitaldi horiek erakusketarik ez dagoenean egin ahal izango dira, edo kasu bakoitzean erakusketa duen artistarekin adostasun batera iritsitakoan, beti ere Aroztegiko Batzorde Mistoak horretarako eragozpenik ikusten ez badu. Hemen jasotako ekitaldiez gain besteren bat egiteko eskaria jasoz gero, batzorde misto honek izango du erabaki-ahalmena. Dena dela, batzorde mistoak hartutako erabakia Alkateak berretsi beharko du gero.
- 26. 2026. urtean ezinbesteko beste arrazoiren batengatik aretoa itxi beharko balitz, programatuta egongo diren baina gauzatu ezinik geldituko diren erakusketek lehentasuna izango dute hurrengo urteko programazioan.
- 27. Baldintzen plegu honen interpretazioaren inguruan sor litezkeen gorabeherak batzorde mistoak erabakiko ditu, eta Alkateak berretsi.
- 28. Aroztegi aretoan erakusketa jartzeko interesa izan eta eskaera egiteak baldintzen plegu hau onartzea dakar ezinbestean.

Bergara, 2025eko urriaren 17a.—Gorka Artola Alberdi, alkatea. (7249)

- Escuchar a las personas supervivientes para poder diseñar medidas de prevención y seguridad, poniendo en valor las estrategias frontales que necesitan las mujeres para sobrevivir, protegerse y empoderarse.
- Colaborar en los procesos de denuncia y reclamación de las víctimas, legitimando los testimonios y necesidades expresadas por las mujeres.

Si en la decisión de suspender una exposición no se pusiera de acuerdo la comisión mixta, o la comisión y el ayuntamiento, prevalecerá siempre la decisión del ayuntamiento.

- 25. Aroztegi es una sala de uso polivalente, aunque las exposiciones tendrán prioridad, de modo que también podrán realizarse en ella otras actividades, sobre todo si están incluidas en el programa cultural de otoño, como por ejemplo conciertos de música de cámara de pequeño formato, conferencias, proyecciones de fotografías y diapositivas, o presentaciones de libros. De todas formas, estos actos se deberán celebrar cuando no haya exposición o cuando se llegue a un acuerdo con el artista que la tenga en cada caso, y siempre que la Comisión Mixta de Aroztegi no vea impedimento para ello. En caso de ser solicitada la realización de actos distintos a los aquí contemplados, esta comisión mixta será competente para resolver. No obstante, la decisión adoptada por la comisión mixta deberá ser ratificada posteriormente por Alcaldía.
- 26. Si en el año 2026 hubiera que cerrar la sala por causa de fuerza mayor, las exposiciones que estén programadas, pero no puedan ser celebradas tendrán prioridad en la programación del año siguiente.
- 27. Cuantas cuestiones puedan suscitarse en torno a la interpretación del presente pliego de condiciones serán resueltas por la Comisión Mixta y ratificadas por la Alcaldía del Ayuntamiento de Bergara.
- 28. La presentación de la solicitud por parte de las personas interesadas en exponer en la sala Aroztegi implica la aceptación incondicional del presente pliego de condiciones.

Bergara, a 17 de octubre de 2025.—El alcalde, Gorka Artola Alberdi. (7249)